


FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera atera dadin hainbat puntu nabarmendu ditugu, esaterako; bideo ekoizpena, protokoloaren egokitzapena, QR kodeak sortzea eta kokatzea, komunikazio-sistema eraginkorra diseinatzea eta bideoaren hedapena eta erabilera.

Hasteko, protokoloaren egokitzapenaren analisia erdigunean jarriko dugu, hori gure bezeroaren arazoaren erroa baita. Protokoloa sinplifikatua agerikoa da, beharrezkoa den informazioa modu errazean bai irakasle eta bai ikasleei helarazteko. Horretarako termino errazak erabiliko dira eta adibide praktikoak agertuko dira.

Bideo ekoizpena oso garrantzitsua izango da; izan ere, gure proiektua bideo batean oinarritzen delako. Kasu honetan, Mendizabalako institutua sute baten aurrean jarraitu beharreko protokoloa aztertu eta ondoren bideo batean argi eta garbi azalduko da. Gainera, grabazioaren irudi eta soinua kalitate onekoa izango da, edukia argia eta erakargarria izan dezan bermatzeko.



Behin bideoa ekoiztua dagoenean, bideoaren hedapena

youtuberen bidez egingo dugu. Bideoa Youtuben modu pribatuan egongo da eta bideora iristeko QR-a beharko da. Zabalpena bermatzeko QR kodeak solairu guztietan zehar kokatuko dira, mundu guztiak eskura izan dezan. Leku estrategikoetan egongo dira, larrialdi baten aurrean QR-ak eskuragarri egoteko, sute baten aurrean denbora ez galtzeko.



Komunikazio-sistema eraginkorra izango da, edukia publiko guztiendako irisgarria izango dena; ikusmen edo entzumen arazoak dituztenentzat ere. Gainera, bideoa praktikoa izango da irakasleen eta ikasleen arteko komunikazioa antolatzeko eta sute baten aurrean denbora ez galtzeko.